

## Irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko zabalkunde ekimenak egiteko espazioa lagatzeko deialdia, kultura eta bizikidetzaren sustatzeko helburuarekin

### Aurrekariak

Cristóbal Balenciaga Museoa kultura-ekipamendua da, eta finantzazioaren hiru laurden erakunde publikoen bidez lortzen du.

Cristóbal Balenciaga xx. mendeko sortzaile garrantzitsuenetakoa izan zen modaren arloan, eta, museo gisa, haren irudia eta obra kontserbatzea, ikertzea eta zabaltzea da eginkizuna. Era berean, helburutzat du haren sormenezko legatu teknika sortzaileen belaunaldi berriei transmititzea, baita kultura- adierazpen horren garapena eta horren enpresa-dimentsioa Euskadin sustatzea ere.

Museoaren programazioa eta espazioak, hortaz, helburu horretara daude bideratuta. Museoa Getarian dago, jostunaren jaioterrian, eta hurbileko komunitate horren parte izan nahi du. Beraz, Getariako herritarren eta gizarte- zein kultura-eragileen zerbitzura jarri nahi ditu, kosturik gabe, bere baliabideetako batzuk. Zehazki, aurrez aipaturikoen zerbitzura utzi nahi du irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko zabalkunde ekimenak egiteko espazio ekipatu bat, kultura eta bizikidetzaren sustatzeko helburuarekin.

Ekimen honen helburua Museoak normalean jasotzen dituen eskaerak erregulatzea da, udalerrian xede horretarako ekipatuta dauden guneen gabeziari aurre egiteko.

### Xedea

Museoaren AUDITORIUMA erabilgarri jartzea. Espazio horrek 46 pertsonarentzako lekua dauka, eta hizlariarentzako mahaia, proiektagailua, ordenagailua, megafonia eta aire girotua ditu.

Espazio horretan jarduera asko egin ahalko dira, besteak beste, erakunde eskatzaileek antolatutako ikastaroak, hitzaldiak, jardunaldiak edo antzeko ekimenak, horien onuraduna jendea bada (inolako murrizketarik gabe) eta doakoak badira.

Espazioa doan lagako da, hilean gehienez 6 orduz. Denbora-tarte horretan jarduera bat edo gehiago egin ahalko dira, egun berean edo desberdinetan, Cristóbal Balenciaga Museoaren erabilgarritasunaren arabera.

Edonola ere, jarduera guztiak egiteko ordutegia gaueko 22:00ak artekoa da.

Museoan egiten diren jarduera guztietan segurtasun- teknikari bat eta mantentze-teknikari bat egon beharko dira. Langile horien kostua jarduera antolatzen duen erakundeak partzialki ordainduko du, Cristóbal Balenciaga Fundazioak igorritako faktura baten bidez. Hauxe da kostua: 30 €/orduko + BEZA.

Kasu horietan, gastu horiek alde aurretik ordaintzea eskatuko da, erreserba formalizatzeko.

## Eskatzaileak

Dagokien erregistroan izena emanda dauden eta egoitza Urola Kostan duten irabazi asmorik gabeko elkarteak edo erakundeak, bi urtetik gorako antzintasuna dutenak, edo Urola Kostako herriren batean modu jarraituan jarduerak egin izana (bi urtetik gorako denbora-tartean) frogatu dezaketenak, egoitza beste herri batean izan arren.

## Eskaerak aurkezteko epea

Erakunde interesdunek hil bakoitzeko 1aren eta 5aren artean egin beharko dute eskaera, jarduera egiteko eskatutako eguna baino gutxienez bi hilabete lehenago.

## Aurkeztu beharreko agiriak

- Harremanetarako pertsona: izena, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Erakundearen identifikazioa, eratu zen eguna eta lekua, helburu soziala, ordezkariaren izena eta NANaren kopia. Erakundea Getarian erregistratuta ez badago, gutxienez bi urtez Getarian jarduerak egin izana frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.
- Jardueraren identifikazioa: izenburua, helburua, nori zuzentzen zaion, hizlariak edo esku hartuko duten pertsonak, izan ditzakeen onuradunen kopurua eta egingo den eguna.
- Adierazitakoari kalterik egin gabe, Cristóbal Balenciaga Museoa egokitzen jotzen dituen agiriak eskatu ahalko dizkie eskatzaileei.

Eskatzaileei jakinarazten zaie erakundeak tratatu egingo dituela eskaintzan jasotako datu pertsonalak nahiz eskaera onartua izanez gero hautagaiek ondoren FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI emango dizkioten bestelako datuak (adib.: izen-abizenak, NAN zenbakia eta helbide elektronikoa), deialdi hau kudeatzeko, proposamenak hautatzeko eta hautatutako pertsonekin harremana kudeatzeko helburuarekin; hori guztia, haien oniritziaren oinarri juridikoaren babesean.

Eskaerak hirugarrenen datuak dituenean, eskatzaileak horien adostasuna duela adierazten du, datuak aurrez zehaztutako helburuetarako tratatzeko.

Testuinguru honetan, eskatzaileei jakinarazten zaie datu pertsonal horiek ematea derrigorra dela eta horiek ez aurkeztea edo datu okerrak ematea oztopoa izango dela FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK haien eskaera kontuan har dezan.

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAK eskatzaileen datu pertsonalak gordeko ditu eskabidea baloratzeko beharrezkoa den denbora-tartean, baita hautagaiek deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko ere, lege-obligazioak betetzeko datuak gorde beharreko denbora-tarte gehigarrian.

Kasu orotan, eskatzaileei jakinaraziko zaie eskubidea dutela (i) FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI eskatzeko euren datu pertsonaletara sartzea, eta horiek zuzendu, ezabatu, horien tratamendua mugatu eta horiek eskualdatzeko edo tratamendua aurkaratzeko, idatzizko eskaria zuzenduta FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI, honako posta helbide honetara: Aldamar parkea 6, 20808 Getaria (Gipuzkoa); eta, era berean, eskubidea dutela (ii) erreklamazioa aurkezteko Datuen Babeserako

Espainiako Agentziaren aurrean edo eskumena duen edozein Kontrol Agintaritzaren aurrean, bereziki eskubideak baliatzeko orduan bere nahiak asebite ez direnean.

Proposamenak aurkeztean, eskatzaileek berariaz ematen dute baimena (I) euren datu pertsonalak adierazitako baldintzetan tratatu daitezzen; eta (II) euren datuak lagatzeko FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI.

Oinarri hauen inguruko edozein zalantza izanez gero, argibideak idatziz jaso ahal izango dira mail bat bidaliz ([info@fbalenciaga.com](mailto:info@fbalenciaga.com)) edo museoko telefonora deituz (943 004 777).

## Eskaerak balioestea

Hil bakoitzeko eskaeren epea bukatzen denean, eskaerak balioetsiko dira, datak egiaztatuko dira eta Fundazioko langileen erabilgarritasuna aztertuko da.

Honako eskaera hauek ez dira aintzat hartuko: osatu gabe daudenak, erakundeari edo jarduerari eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak edo Museoak espazioa erabiltzen duen egunetan egin nahi direnak.

Aldi bakoitzean eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, hilean 6 orduko lagapenaren mugara heldu arte onartuko dira eskaerak.

Hil jakin batean eskaerek ordu erabilgarri horien kopurua gaindituz gero, eskaerak honako irizpide hauen arabera lehenetsiko dira:

- Jardueraren izaera eta gaia.
- Onuradun kopurua.
- Gonbidatuen/hizlarien profila.

Museoaren eginkizunera eta jarduerara hobeto egokitzen diren jarduerak lehenetsiko dira.

## Eskaerari erantzutea

Hil bakoitzeko 6aren eta 10aren artean, eskaera onartu ala ez onartu, erantzuna bidaliko da harremanetarako helbidera. Une horretatik aurrera, erakundeak 15 eguneko epea izango du espazioa erabiltzeko erregelamenduarekin eta larrialdi-kasuetan jarduteko arauekin lotutako dokumentazioa sinatuta bidaltzeko, baita aurreikusitako gastuak aldeztatik aurretik ordaintzeko ere, hala badagokio. Une horretatik aurrera, espazioa erreserbatutzat joko da.

## Oinarriak onartzea

Deialdi honetara aurkezteak aurreko oinarriak eta ebazpena onartzea dakar.

## Beste betebeharrak

Espazio hori lagatzeak ez dakar FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN titulartasunpeko irudiaren, marken, logotipoen eta/edo izen komertzialen gaineko ustiapen-lizentziarik ematea. Jarduerak antolatzen dituzten erakundeek ezingo dute FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOAREN titulartasunpeko irudirik, markarik, logotiporik eta/edo izen komertzialik erabili, ezta horiekin identifikatu ere, horretarako berariazko baimena ematen ez bazaie.

Lagapen-hartzailea honako hauen erantzulea izango da: lagatuko espazioaren erabilera onarena, jarduera egitearen ondorioz sor daitezkeen kalte pertsonal eta/edo materialena, baita jarduerara bertaratutako jendearen jarreraren ondorioz eragin daitezkeen erantzukizun zibil eta/edo penalena ere. Halaber, berariaz adierazten du FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA erantzukizunik gabe utziko duela aurrez aipatutako kasuetan.

Edonola ere, espazioaren lagapen-hartzaileak FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOARI bermatuko dio lagatuko espazioan egingo duen jarduerak ez duela hirugarrenen eskubideen aurka egiten, eta behartuta dago FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA erantzukizunik gabe uztera, horren harira hirugarren batek egin ditzakeen erreklamazioen aurrean. Cristóbal Balenciaga Museoak eskubidea du jarduerak ikuskatzeko eta lagapenaren baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzeko. Halaber, jarduera bat eten edo geldiaraz dezake, baldintza horiek betetzen ari ez badira.

## Erabiltzeko lagapena irautzea

Erabiltzeko lagapena arrazoi hauengatik irautziko da:

- Baimendutako iraupen-epea bukatu delako.
- Espazioa erabiltzeko erregelamendua eta jarduteko arauak ez betetzeagatik baliogabetu delako.

